



# EDIKTUA

Honen bidez jendaurrean jartzen da zergadunen errolda eta **2020 urteko TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGAREN** likidazioa, 120.790,08 eurokoa. Likidazioa 2020ko maiatzaren 19ko 92 zenbakidun ebazpenaren bidez onetsi zen (AJAren 41.18 artikuluan xedatutakoa betez).

Halaber, honen bidez ezartzen da borondatezko diru-bilketarako epea eta modua.

## ***Ordaintzeko borondatezko epea: 2020ko maiatzaren 19tik uztailaren 9ra.***

*Ordaintzeko modua:* Helbideratutako erreziboak kontuan kargatuko dira 2020ko ekainaren 18n eta helbideratu gabekoak udaleko banku-kontuetan transferentzia eginez, Info-Local zerbitzuaren bidez edo [www.olazti.com](http://www.olazti.com) web orriaren bidez ordain daitezke. Dirusarrera egiteko ezarritako epea igarotzen bada ordainketa egin gabe, prozedura exekutiboa ireki eta Tributuei buruzko 13/2000 Foru Lege Orokorreko 117. artikuluan ezarritako errekareruak gehituko zaizkio.

Zergadunen zerrenda jendaurrean jartzea ondoko arau hauen arabera egingo da:

- 1.- *Tokia:* Zerrenda udal bulegoetan jarriko da ikusgai interesatuen esku.
- 2.- *Aztertze epea:* Hilabete bat ediktua Olaztiko Udaleko iragarki taulan jarri eta biharamunetik hasita.  
Epe hori bera ezarriko da desadostasuna adierazteko.
- 3.- *Zein organoren aurrean errekurritzen den:* Olaztiko Udaleko alkate udalburuaren ordezkariaren aurrean.
- 4.- *Erreklamazioak aurkezteko tokia:* Udaletxeko erregistroan, bulego orduetan, eta Erregistro elektronikoa ([www.olazti.com](http://www.olazti.com)).
- 5.- *Errekurtsuak:*
  - a) Hilabeteko epean, BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA, egintzaren organo egileari zuzendua edo, aukeran, GORA JOTZEKO ERREKURTSOA, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua.
  - b) ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOA, bi hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua; alabaina uztailaren 13ko Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzko 29/1998 Legeko 8.1. artikuluan zehaztutako kasuetan Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Sailari zuzenduko zaio.
- 6.- *Errekurtsua jartzearen ondorioak:* Errekurtsuak edo erreklamazio ekonomiko-administratiboak ezartzeak ez du etengo aurkaratu den egintza horren betearazpena, horrek dituen legezko ondorioekin, eta egintza horien barruan daude kuoten, likidatu diren eskubideen edo korritu eta errekareruaren bilketa.

Olaztin, 2020ko maiatzaren 19an.

**ALKATEA,**  
**Roberto Martínez Mendía**  
*(elektronikoki sinatua)*